



## ■ BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

# Bertso finalik gozoena, gaur BECen

11:00etan hasiko da goizeko saioa eta arratsaldeko saio erabakiorra, 16:30etan.

IRISTI da eguna. Lau urtean behin, bertsozale guztiak eta bertsozale ez direnak ere, arreta guztia jartzen dute gaurko egunean, BECn jokatu den Bertsolari Txa-pelketako Final Nagusian. Eta Hernaniko Bertso Eskolak lau bertsolari sartu ditu 2017ko finalean. Oholtza gainera igoko dira Maialen Lujanbio, Unai Agirre, Aitor Mendiluze eta Beñat Gaztelumendi eta hauekin batera ariko dira txapelaren bila; Sustrai Colina, Amets Arzallus, Aitor Sarriegi eta Igor Elortza.

**25 bertso, bertsolari bakoitzak eta beste hamaika buruz burukoan**  
Finala 11:00etan hasiko da eta arratsaldeko saioa 16:30etan. Goizean 15 bertso kantatuko dituzte zortzi bertsolariak: binaka zortziko txiki, haundi eta hamarreko txikian hiruna, hiru punturi erantzun eta kartzelako lana. Arratsaldean 10: hiru binaka sei puntuko motzean, puntuka biren artean zortzi bertso osatu arte eta hiru banaka nahi duten doinu eta neurrian. Buruz burukoan beste 11: binaka hiruna zortziko haundian eta launa zortziko txikian; banaka bertso bana bederatziko txikian eta hiruna kartzelako lanean.

**Maialen eta Unairen txokolatezko irudia**  
Asko hitzegin da eta idatzi da finalaren aurretik eta bitxikeri gozoak ere aurkitu daitezke. Horietako bi, Hernaniko Oa gozotegi dendarena eta *Hiru* arropa dendarena. Txokolate zuriaren gai-



Oan, Maialen Lujanbio eta Unai Agirreren txokolatezko irudia aurkitu daiteke.

nean txokolate beltzarekin Maialen Lujanbio eta Unai Agirreren irudia egin du Miren Lukas Hernaniko gozogleak. Erantzun ona izan du, ikusi dutenek zoriondu egin dute.

Txokolatezko irudiak egiten aspaldi hasi zen, baina gutxi egiten ditu den-bora asko eskatzen dutelako. Igande arratsalde batean egin zituen, bertsolarien argazkien siluetak egin ordenagailuan, zirriborroa paperean atera, plastikoan txokolate beltzarekin koptatu eta gainean txokolate zuria botata.

**'Hiru' haurren arropa dendan haurrak bertsotan**  
Hiru haurren arropa dendan

ere Txapelketa Nagusiari keinu egin diote; erakusleihoko eskenatokian lau haur ageri dira bi mikrofonoren atzean eta batek bertsoa 'kantatzen' du: *Hernanin badaukagu, bertso harrobia ni ere bertso eskolan, aurten naiz hasia Unai eta Maialen, finalean di(r)a eta baietz ekarri, txapela jantzia.*

**2017an 17garren txapela**  
1935ean lehenengo txapelketa jokatu zenetik txapela jantzi duten bertsolariak ez dira asko, bederatziki; eta txapela, Maialen Lujanbiok duela zortzi urte, 2009an,

### PALMARESA

- 1935: Inazio Eizmendi *Basari*
- 1936: Joxe Manuel Lujanbio *Txirrita*
- 1960: Inazio Eizmendi *Basari*
- 1962: Manuel Olaizola *Uztapide*
- 1965: Manuel Olaizola *Uztapide*
- 1967: Manuel Olaizola *Uztapide*
- 1980: Xabier Amuriza
- 1982: Xabier Amuriza
- 1986: Sebastian Lizaso
- 1989: Jon Lopategi
- 1993: Andoni Egaña
- 1997: Andoni Egaña
- 2001: Andoni Egaña
- 2005: Andoni Egaña
- 2009: Maialen Lujanbio
- 2013: Amets Arzallus

jantzi zuenaren aurretik, Joxe Manuel Lujanbio *Txirritak* 1936an jantzi baitzuen, historiako bigarrena. ■

## ■ SANTO TOMAS

**Eguraldi txarrak izan zuen eragina**  
Santo Tomas feria Plaza Berrin atzo ospatu zuten, San Joan Konpartsak eta eskubaloiak, eta eguraldiak nahiz eta ez zapuztu eragin zuzena izan zuen giroan. Ez zen beste urteetan bezalako partaidetza izan. Gaur, Florian eta Zikuñagan ospatuko da. ■

## ■ UDALA

**Bide mozketak, landa bideetan**  
Bihar eta etzi zerbitzu sailak landa bideetan egin behar dituen asfaltatze lanak direla eta bide mozketak egongo dira. Lastaola doan bidean zubi txi bat pasata. Goiko Lastola baseritik Onyipe base-rira doan bide zatia. ■

## ■ ELIZATXO ETA PORTU

**Mugikortasuna hobetzeko bilera**  
Udalak, bihar, 19:00etan, Portuko eta Elizatxoko auzotarrak eta Elizatxo ikastolako komunitatea gonbidatzen ditu eremu horretan oinezkoen mugikortasuna eta espazio publikoa hobetzeko neurriak eta irtenbideak adosteko bilerara. Elizatxo ikastolan izango da. ■

## ■ FOTO FORUM

**Merkatu txikia, Atsegindegin**  
Outlet argazki merkatu txikia jarriko da gaur Atsegindegin. Bertan argazkiak egongo dira ikusgai eta eskuragarri. ■

## ■ TXISTULARIAK

**Bederatzi pieza, kontzertuan**  
2017ko Eguberrietako txistu kontzertua eskainiko da gaur, 13:00etan, Milagrosan. Txistulari Banda eta gitarrajolea izango dira partaideak. ■

## ■ ERRUGBIA

**Cisneros-Hernani, gaur 12:30etan**  
Bigarren itzuliko lehena eta urteko azken partidua jokatuko du hemanik gaur, 12:30etan, Madrilen Cisnerosen aurka. ■

**AMONA PETRITA**  
**97 URTE**  
**IZORIONAK!**  
**ETXETOKAK**

**Aitor Ruiz de Eguino**  
OPARI ARTISTIKOAK  
ESKULTURA, PINTURA, ZERAMIKA  
Prezioak web orrian, %20 deskontua  
Santa Barbara 58, Hernani  
[www.aitorruizdeegino.com](http://www.aitorruizdeegino.com)  
685 76 82 45

**KARABEL BERRI**  
salgai  
**Garaje irekiak**  
16.000 €-tik aurrera\*  
\*+%21 BEZ  
Informazioa  
**943 42 95 21**  
[www.karabelberri.com](http://www.karabelberri.com)  
**KARABEL BERRI**